

KANALAK

Atal honetan, gure bezeroekin komunikatzeko erabiliko ditugun komunikazio bideak eta gure ondasunaren salmenta kanalak aipatuko ditugu.

Bezeroarekin harremana mantentzeko, honako bi bide hauek aukeratu ditugu: enpresaren posta elektronikoa eta telefono zenbakia. Bi baliabide hauek eskuratzeko eta produktuari buruzko informazioa, ezaugarriak, jarraibidea,... eskaintzeko, gure web gunea sortu dugu. Honek Gas Gas izena du eta nabigatzailean gasgas.eus idatziz zuzeneko helbidea du. Web gunea atal desberdinetan egongo da banatuta. Horietako bat "Laguntza" izena duen atala da. Bertan, lehen esan bezala, bezeroek gurekin kontaktuan jartzeko erabili ahalko dituzten posta elektronikoa eta telefono zenbakia adierazi ditugu. Komunikazio bide hauek gure taldeko kide

batekin zuzenean harremanetan jartzeko ahalmena eskaintzen dute, baina ordutegi baten barnean, astelehenetik igandera goizeko 8etatik gaueko 9ak arte. Zerbitzu hau bezeroek gailuarekin zerikusia duen edozein zalantza argitzeko asmoarekin eskaintzen dugu.



Gure produktuaren salmenta puntuak Espainiako aireportu guztiak eta hirietako turismo bulego nagusiak izatea erabaki dugu, izan ere, gure bezero potentzialarentzat toki hauek ohikoak dira. Aierportuetan, ohikoak diren denda multzo horien barne, gailua teknologia dendetan saltzeko asmoa dugu.

Behin gure produktua sortu dugula aireportu eta hirietara bidali behar dugu, horretarako, Correos enpresarekin kontaktuan jarri gara banaketa egin ahal izateko. Hauek, produktua gure lokalean jaso eta behar den tokira egoera egokian eramateaz arduratuko dira.

